

Zierbenako Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuak urtero izango du aurrekontu bat herritarren etxebizitzetako arkitektura-oztopoak kendu eta ezabatzeko.

BETEKIZUNAK:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekotasun balorazioa izatea eta Rai screener-en III GRADUA 2 MAILA edo III GRADUA I MAILA izatea.
- Bizikidetzako unitate ekonomiko independenteak ezin du hileko sarreren berme-errenta halako bost gairiditu.
- Bizikidetzako unitate ekonomiko independentearen ondareak obraren kostuaren % 80 edo gutxiago izan behar du.
- Udalerriko erroldan gutxienez urtebete izena emanda egotea.
- Aurrekontua 6,00 eurotik gorakoa izango da.

ESKABIDEAK:

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak 2011eko maiatzaren 9etik 23era zabalduko du eskabideak egiteko epea. Epe horretan eskabide-orria entregatuko da honako agiri hauekin batera:

- Etxebizitzan dauden pertsona guztien nortasun agiria.
- Famili liburua.
- Erroldatze-ziurtagiria antzinatasun datarekin.
- Pertsonari emandako mendekotasun gradua adierazten duen foru agindua.
- Bankuko kontuak eta tituluak adierazten dituzten banku-ziurtagiriak.
- Jabetza-erregistroak emandako ondasun higiezin ziuurtagiria edo ondasun higiezin gainera zergaren azken ordainagiria, higiezina hirikoa edo landakoa dela ere.
- Bizikidetzako unitate ekonomiko independenteko kide guztien sarreren frogagiria (azken nominaren kopia, pentsioen ziurtagiria, langabeziaren ziurtagiria...)

- Enpresa desberdinen aurrekontu bi, eskatutako eraberritzeari dagozkionak.
- Obrako udal lizentziaren kopia.
- Eraikin edo higiezinaren elementu komunak eraberritu edo instalatu behar badira (arrapala, igogailua, plataforma jasotzailea, eskudela, e.a.), honako agiri hauek aurkeztuko dira, eranskin gisa:
- Egin beharreko eraberritzea onartu den auzokoen bileraren aktaren kopia.
- Auzokoen erkidegoko ordezkariak egindako agiria. Bertan, eskatzaileak ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko da.
- Instalazioa egingo duen enpresaren edo teknikari eskudunaren proiektu teknikoaren kopia.
- Obrako udal lizentziaren kopia.
- Behin obra bukatuta, amaitu den obraren faktura eta argazkia aurkeztu beharko da.

DEIALDI BAKOITZEAN ESKABIDE GUZTIAK ONARTUKO DIRA, BETI-RE BALDINTZA GUZTIAK BETE ETA ESKATUTAKO AGIRIAK AURKEZTEN BADITUZTE, HARIK ETA HORRETARAKO DAGOEN DIRU KOPURUA AGORTU ARTE.

ESKABIDEAK OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAN AURKEZTUKO DIRA, KULTUR ETXEAN, ADIERAZITAKO EPEAREN BARRUAN.

ARGIBIDE GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO DEITU ASTELEHENETIK, OS-TIRALERA.

Ayudas Económicas para la Supresión de Barreras Arquitectónicas en el Municipio de Zierbena

